

## AURKEZPENA

Antonio Arrue Zarauz jauna zana-  
ren itzaldi eta idazlanen bilduma es-  
keintzen diogu gaur irakurleari. Bera nor  
izan zan eta bilduma au zer dan adie-  
razi nai nuke nere lerro auen bidez.

Asteasun jaio zan 1903-ko mar-  
txoaren 26-an, Elizmendingin. Gaur ezik,  
erri euskaldun utsa izango zan garai ar-  
tan Ernio mendi azpiko erri ori. Bera  
zer zan jakin nai duenak irakur dezala  
Mikaela Elizegiren *Pello Errotaren bizitza  
bere alabak kontatua* liburua, Auspoa 32,  
1963. Bertsolari famatu ori (1840-  
1919) artean bizi zan eta Antonio  
Arruek ezagutu zuen, noski. Onek, be-  
raz, euskera, euskaltasuna eta eus-  
kaltzaletasuna txikitandik bereganatu  
zituen, arnasarekin batean, alegia.

## PRESENTACIÓN

*Ofrecemos hoy al lector la recopilación  
de las conferencias, prólogos y otros escritos  
del señor Antonio Arrúe Zarauz, unos en  
vascuence y otros en castellano. En estas lí-  
neas esbozaremos una semblanza de su per-  
sona y del contenido de este libro.*

*Nació en Asteasu, el 26 de marzo de  
1903, en el barrio de Elizmendi, en la ca-  
sa Apalasangasti. Ese pueblo al pie del mon-  
te Ernio sería entonces exclusivamente vas-  
co. Quien quiera hacerse una idea de lo que  
era puede leer el libro La vida de Pello  
Errota contada por su hija, de Mi-  
kaela Elícegui y Antonio Zavala (Auspoa  
32, 1963). Vivía aún este famoso berso-  
lari (1849-1919) y Arrúe hubo de co-  
nocerlo. Éste, por tanto, asimiló desde su  
infancia el vascuence y el amor a lo vasco,  
con el aire que respiraba.*

Arrueren aita erriko organista zan, eta beste errietatik ere deitzen zuten elizkizun aundietan organoa jotzera. Arek idatzitako doiñu batzuk entzuten omen dira noizean bein oraindik ere Asteasun. Eskola ematen ere jarduten zan. Baiña artara etortzen zitzaizkion aurrei, eguraldi txarra baldin bazan, etxea lokatzez zikindu etzetzaten, oiñeta-koak aldatzera beartzen omen zituen, berak artarako zituen *zapatilla* batzuk jantzi araziz.

Arruek bi arreba izan zituen: Eleuteria eta Dolores. Biak Zarauzko bi medikurekin ezkondu ziran, biak anaiak, Alzuru abizenekoak.

Kaputxinoek Lekarotz errian zuten ikastetxean batxiller egin zan. Lege-gizon, berriz, Oviedoko unibertsitatean; eta orixe izan zuen bere bizibidea. Bere bizitzarik geiena Donostian igaro zuen.

Ezkondu Maria Teresa Salazar-ekin egin zan. Lau seme-alaba izan zituzten: Juan, Maite, Maria Ignazia eta Maria Karmen.

Berak idatzitako orri batean onela irakurtzen da:

*«Soy miembro de número de la Real Academia de la Lengua Vasca, socio supernumerario de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y miembro de las Juntas Rectoras del Grupo de Historia Vascongada de los Amigos del País Doctor Camino y Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo.*

*Fui Procurador en Cortes, de representación familiar por Guipúzcoa, en la Legislatura de 1967-1971.*

*En política fui siempre tradicionalista».*

*El padre del señor Arrúe era el organista de Asteasu, y le llamaban también de otros pueblos para que tocara el órgano en las solemnidades. Se conservan y se oyen todavía de vez en cuando en Asteasu algunas melodías compuestas por él. Se ocupaba también en dar clases. Pero a los alumnos que acudían, si el tiempo era lluvioso, para que no embarraran la casa, les hacía cambiarse de calzado, para calzarse unas zapatillas que él reservaba para eso.*

*Tuvo Arrúe dos hermanas: Eleuteria Y Dolores. Las dos se casaron con dos médicos de Zarauz, hermanos entre sí, de apellido Alzuru.*

*Estudió el bachillerato en el colegio que regentaban en Lecároz los capuchinos. Hizo la carrera de leyes en la universidad de Oviedo y ésa fue su profesión. La mayor parte de su vida la pasó en San Sebastián.*

*Contrajo matrimonio con María Teresa Salazar y tuvieron cuatro hijos: Juan María, Maite, María Ignacia y María Carmen.*

*En una hoja escrita de su mano se lee:*

*«Soy miembro de número de la Real Academia de la Lengua Vasca, socio supernumerario de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y miembro de las Juntas Rectoras del Grupo de Historia Vascongada de los Amigos del País Doctor Camino y Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo.*

*Fui Procurador en Cortes, de representación familiar por Guipúzcoa, en la Legislatura de 1967-1971.*

*En política fui siempre tradicionalista».*

Ain zuzen, Gipuzkoako karlista alderdiaren buruzagietako bat izana zan. Errepublikaren denboran an eta emen makiña bat itzaldi egiña; eta, 1936-ko gerra piztu zanean eta Donostia errepublikaren mende egon zan denboran, bere burua salbatzearren izkutuan egon bear izan zuena.

Gerra ondoren, berriz, Francorekin etzegoan nunbait ere konforme eta bear baiño gorago itzegiten zuen. Ala, agintariiek erbestera bialdu zutan, Gijón-era, eta an urtebete-edo egin bear izan zuen.

Baiña gai auetaz ezer gutxi entzun nion. Itxura danez, etzuen gustoko gaia.

Ala ere, beste au neronek entzun nion beste batean. Karlistek Karlos Hugo zuten beren buru, eta alderdiaren ideologia gaurkotzen eta aldatzen asia zan. Eta Arruek orduan esana: «Nik tradizionalista izaten jarraituko det. Baiña Karlos Hugo eta oiekin ez det ezer ere nai».

Euskaltzain oso 1954-an izendatu zuten. Ortarako bazituen, noski, bear ainbat meritu, gure izkuntzarengana beti erakutsi oi zuen zaletasunagatik.

1956-an euskaltzaleen biltzarra egin zan, eta ona nola aitortzen duen Aita Luis Villasante zanak, Arrue jaunaren *Jan-edanak* (1979) liburuarentzat idatzi zuen itzaurrean:

«Orduko Aita Guardianari –Aita Carlos Gastesi– gogoratu zitzaion ondo legokeela euskaltzaleen biltzar bat ere, Euskaltzaindiak antolatua, Arantzazun egitea. Egun batean Aita Gastesi horrek

*Precisamente, formó parte de la Junta del partido carlista en Guipúzcoa. Durante la república actuó aquí y allí como orador en euskera en muchos mítines; y cuando estalló la guerra de 1936, en el tiempo en que San Sebastián quedó en zona republicana, él tuvo que permanecer escondido para salvar su vida.*

*Pero después de la guerra, no se ballaba por lo visto conforme con Franco y hablaba más fuerte de lo que era conveniente. En consecuencia, las autoridades lo enviaron al destierro, a Gijón, donde residió un año.*

*Pero de estos incidentes apenas le oí hablar. No eran, por lo que se ve, tema de su gusto.*

*Pero esto otro lo escuché de sus labios. Los carlistas tenían como jefe a Carlos Hugo y éste se había empeñado en cambiar la ideología del partido. Y Arrúe se expresó entonces así: «Yo continuaré siendo carlista hasta la muerte. Pero con Carlos Hugo y los suyos no quiero saber nada».*

*En 1954 fue nombrado miembro de número de la Academia de la Lengua Vasca. Contaba para ello con méritos suficientes, por la adhesión que siempre había mostrado a nuestro idioma.*

*En 1956 se celebró un congreso de vascófilos en Aránzazu, y he aquí cómo se expresa el padre Luis Villasante en el prólogo que escribió para el libro *Jan Edanak* (1979) (*Manjares y bebidas*) del señor Arrúe:*

*«Al padre guardián de entonces, Padre Carlos Gastesi, se le ocurrió que estaría bien celebrar en Aránzazu un congreso de vascófilos, organizado por la Academia de la Lengua Vasca. Un*

hauxe esan zidan: Proposa zazu Euskaltzaindiko Batzarrean Biltzar bat hemen Arantzazun egitea, tokia eta bestelako erraztasunak guk emango dizkiegula esanez. Baina hau gaineratu zidan: Baimena lortzea, ordea, Euskaltzaindiaren beraren kontu gelditzen da...

Hala esan nuen nik batzarrean, eta han ontzat hartu zen. Baina katuaren txintzarria zeinek jarri? Baimena zeinek eskuratu? Biltzarrrerako prestamen guziak eginik zeuden eta oraindik ez zegoen baimenik. Azken minutuan, ordea, lortu zen. Zenbaitek lan egin zuelako, jakina. Tartean han ibili zen Arrue jauna...»

Arantzazuko biltzar artan ni ere an izan nintzan, erri literaturari buruz itzaldi bat egitera deitua. Antxe ezagutu nuen Antonio Arrue jauna. Bera, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena izaten ziran geienetan mai-buruan.

Arantzazuko biltzarrak, beraz, asko zor zion Arrueri. Eta gero gerokak, Villasantek aitortzen duenez:

«Biltzar hura hasiera besterik ez zen izan. Ondoko urteetan, han eta hemen, beste batzuk antolatu ziren. Euskal kezka piztu eta bultzatzeko jend'aurreko Biltzar hoiek izan duten eragina beharko da egunen batean neurtu. Biltzarrok egiteko, ordea, baimena behar izaten zen. Eta hori lortzeko Arrue jaunagan aurkitu

*día me dijo así el tal padre Gastesi: Proponga usted, en la reunión de la Academia de la Lengua Vasca, celebrar aquí, en Aránzazu, un congreso; que de los locales y demás requisitos nos encargaremos nosotros. Pero me añadió: Ahora que el conseguir los permisos deberá correr a cargo de la Academia...*

*Lo dije yo así en la reunión, y fue aprobada mi propuesta. Pero ¿quién le ponía el cascabel al gato? ¿Quién conseguiría el permiso? Toda la preparación para el congreso estaba ultimada y todavía no había permiso. Pero en el último minuto se logró. Porque algunos trabajaron, claro. Entre otros allí se movió el señor Arrúe...»*

*También un servidor participó en aquel congreso de Aránzazu, invitado a hablar de la literatura popular. Allí conocí al señor Antonio Arrúe. Él, con Manuel Lekuona y Luis Michelena, eran los que presidían las reuniones.*

*Por lo tanto, aquel congreso de Aránzazu le debió mucho a Arrúe. Y lo que vino después, según confiesa Villasante:*

*«Aquel congreso no fue más que el comienzo. En los años posteriores se organizaron algunos otros aquí y allí. La contribución de esos congresos públicos para despertar y fomentar la inquietud por el vascuence, deberá ser estudiada algún día.*

*Pero para estos congresos hacía falta el permiso. Y para lograrlo, la Academia de la Lengua Vasca encontró siempre*

zuen beti Euskaltzaindiak lagun bat inoiz ez gezurtatua».

Geroztik arreman ugariak izan genituen Arruek eta biok alkarrekin. Ortara asko lagundu zutenak, bertsolari-txapelketak izan ziran: 1960, 1962, 1965 eta 1967. Arrueren alderdi ontaz ona aita Villasantek zer dion:

«Bada oraindik beste alor bat Arrue jaunak txit gogoko zuena eta berari asko zor diona: bertsolariena. Euskaltzaindiaren barnean bazen —eta bada— bertsolari lehia-keta eta jaialdiak antolatzeke batzordea. Batzorde ortakoa zen Arrue jauna eta sail hortaz aparte-ko arretaz arduratzen zela bada-kit».

Izan ere, txapelketa oien finala Donostian izaten zan; baiña aurretik an eta emen eliminatoriak zirala. Epai maaiekoak sarritan goizean etxetik atera eta gaueraño alkarrekin izaten giñan. Baita ere aurretik toki jakin batean bildu eta gaiak prestatu.

Taldea onako beste lagun auek osatzen genuen: Hondarribiko Fernando Artola “Bordari”, Bilboko Alfontso Irigoien, Oiartzungo Juan Maria Lekuona, Donostiako Antonio Valverde, Eibarko Juan San Martín, Donostiako Anbrosio Zatarain, lerro auek idazten ari dana eta abar.

Orain sartzen naiz lagun oiek danak mundu au utzi zutela, eta ni bakarririk gelditzen naizela.

Asko edo gutxi bertsoa epaitzen bagenekian danok ere. Baiña Arrueren

*en el señor Arrúe un colaborador que nunca falló».*

*Tras el congreso de Aránzazu las relaciones entre el señor Arrúe y un servidor fueron muy frecuentes. Lo que contribuyó mucho a ello fueron los campeonatos de bersolaris de 1960, 1962, 1965 y 1967. Acerca de este aspecto de Arrúe dice así el padre Villasante:*

*«Hay aún otro sector que el señor Arrúe amaba de veras y que le debe a él mucho: el de los bersolaris. Dentro de la Academia de la Lengua Vasca existía, y existe, un comité dedicado a la organización de campeonatos y festivales de bersolaris. A ese comité pertenecía el señor Arrúe y me consta que se ocupaba de él con una dedicación especial».*

*La final de esos campeonatos solía celebrarse en San Sebastián; pero antes tenían lugar las eliminatorias en distintos puntos. Los miembros del jurado salíamos muchas veces por la mañana de casa y no volvíamos hasta la noche. Incluso nos reuníamos antes en algún lugar determinado a preparar los temas.*

*El grupo lo formábamos el señor Antonio Arrúe, de Asteasu; Fernando Artola, “Bordari”, de Hondarribi; Alfonso Irigoyen, de Bilbao; Juan Maria Lekuona, de Oiartzun; Antonio Valverde, de San Sebastián; Juan San Martín, de Eibar; Anbrosio Zatarain, de San Sebastián; y el que estas líneas escribe. Ahora me doy cuenta de que todos esos amigos dejaron ya este mundo y que quedo solamente yo.*

epaia etzan kamutsena izaten; alde-rantziz baizik. Aren iritzia zorrotza eta fiña benetan.

Ainbestetan biltzen giñanez, lagun miñak egin giñan. Bazkaldu edo apaldu ere sarritan alkarrekin egiten genuen, eta denbora asko baiño len oitura au zegoen gure artean onartua. Jatekoak aukeratzeko karta ekartzen zigitenean, iñork etzion kasorik ere egiten, eta Arrueri ematen genion. Onek irakurri eta au eta ura eskatzen zuen. Guk orduan aren berdiña nai genduela esaten genduen, eta bein ere etzitzai-gun damutu.

Arrue, izan ere, oso moko fiña zan. Aren beste zaletasun bat orixe zan. Gastronomiari buruzko itzaldiak-eta aurkituko ditu irakurleak liburu ontan. *Cofradía Vasca de Gastronomía* taldearen sozio zan. Liburutegi on eta oparo bat bazuen gai ortaz osatua.

Bitartean, euskera eta Euskaltzandiaren alde lanean jarraitzen zuen Arrue jaunak. Ona Villasantek nola esaten digun:

«1964 urtean *Gero*-ren edizio berria egin nahi zen, euskeraz eta erderaz. Hortarako Juan Flors argitaratzaileak baldinkizunak jarri zizkigun. Baldinkizunok betetzeko diru mordoak bear, ordea—Euskaltzaindiak ez zuena—. Berriz ere Arruerengana jo genuen. Eta haren jestioei esker zuzendu zen diru hori».

*Todos sabíamos valorar con mayor o menor acierto las estrofas cantadas. Pero el juicio de Arrúe no solía ser el más romo, sino todo lo contrario. Su opinión era de veras aguda y fina.*

*Tantas veces nos reuníamos que llegamos a ser íntimos amigos. Comíamos y cenábamos juntos con frecuencia, y antes de mucho tiempo, y de común acuerdo, se había establecido entre nosotros una costumbre. Cuando nos presentaban la carta del menú, ninguno de nosotros la leíamos y se la pasábamos a Arrúe. Éste la estudiaba con atención y escogía esto y lo otro. Los demás entonces pedíamos lo mismo, y nunca tuvimos que arrepentirnos de ello.*

*Es que Arrúe era un refinado gourmet. Otra de sus aficiones era precisamente ésta. El lector encontrará en este libro conferencias acerca del buen comer. Pertenecía a la Cofradía Vasca de Gastronomía. Sobre ese tema había reunido una buena y copiosa biblioteca.*

*Pero el señor Arrúe continuaba trabajando en favor de la Academia de la Lengua Vasca. He aquí lo que nos dice Villasante:*

*«El año 1964 se trataba de hacer una nueva y bilingüe edición, en vascuence y castellano, de la obra Gero (Después). El editor Juan Flors nos presentó sus condiciones. Para cumplirlas, hacía falta dinero, algo que la Adademia no tenía. Acudimos de nuevo a Arrúe. Y, gracias a sus gestiones, se obtuvo la suma necesaria».*

Ez dakigu zein atetan jo bearko zuen diru ori eskuratzeko. Baiña egin bear zana egin zuen. Andik urte batzuetara egiteko larriagoa izango zuen. Ona Villasanteren itzak:

«1969an edo inguru hortan zurrumurru bat zabaldu zen: Euskaltzaindiak ez zuela lege nortasunik, eta, beraz, hari edozein barrabaskeria eginik ere, berdin zela, zeren hark ez baitzuen bere burua defenditzeko biderik. Eta gezurra badirudi ere, indargabezia hortaz baliaturik, tiroak heltzen ziran gutien uste genuen lekutatik. Euskaltzaindia bere lege nortasun hori finkatu beharrean gertatu zen, bada. Eta hortan ere Arrue jaunagan habe sendo-leiala aurkitu zuen.

Berak ikusi zuen hortarako, lehen urrats bezala, Euskaltzaindiaren Arautegia gaurkotu behar zela, eta lege gizon zen aldetik berriztatze hortan asko lagundu zuen. 1972an Euskaltzaindiak Arautegi berriztatua onartu zuen.

Gero, berriz, Madrilerako joan-eto-erriak egin behar, Euskaltzaindia legezko Instituzioa bezala aitortua eta onartua izan zedin. Arazoa ez zen bat ere erraza. Askotan hitz onak, baina ondoriorik ez.

Oroit naiz behin Madrilen Ministro batekin egon ondoan pozik atera ginela, dena eginik zegoelakotan. Joan ginen ostatu batera bazkaltzera. Arrue jaunak esan zuen: Gaur egun handia da eta,

*No sabemos en qué puertas llamaría para lograr ese dinero. Pero cumplió con su cometido. De allí a unos años se habría de enfrentar con un asunto más grave. He aquí las palabras de Villasante:*

«Hacia el año 1969 se extendió el rumor de que la Academia de la Lengua Vasca no gozaba de personalidad jurídica y que, por tanto, cualquier irregularidad que con ella se hiciera era irrelevante, porque no podía defenderse. Y, aunque parezca mentira, amparándose en esa debilidad, le venían ataques desde donde menos cabía esperar. La Academia de la Lengua Vasca se encontraba, por tanto, en la necesidad de regularizar su situación. Y también para eso encontró en el señor Arrúe un firme y leal apoyo.

*Vio él que el primer paso a dar era el de poner al día el reglamento de la Academia; y, como hombre de leyes que era, colaboró mucho en esa renovación. De ese modo, en 1972 la Academia aprobó el reglamento actualizado.*

*Pero después fueron precisos varios viajes a Madrid, para que la Academia fuera reconocida y aprobada como Institución legal. El asunto no era nada fácil. Abundaban las buenas palabras, pero sin consecuencias.*

*Recuerdo que una vez, después de haber hablado con un ministro, salimos contentos en la convicción de que ya estaba todo hecho. Nos dirigimos a un restaurante a comer. El señor Arrúe dijo: Hoy es un día grande y, para celebrarlo, pidamos un vino de marca.*

hau ospatzeko har dezagun markako ardoa. Hala egin genuen. Baina orduan ere gure esperantzak ustel atera ziren. Azkenik, 1976 urtean, Juan Carlos errege sartu zenean, lortu zen Onartze-Dekretu hori, eta orduan ere Arrue jaunna geurekin izan genuen Madrilen (Ikus “Euskaltzaindiaren legezko nortasuna”, *Euskera* 1976, 279)».

Arrueren beste alderdi bat zer zan onela adierazten du Villasantek:

«Euskaltzaindiaren jendaurreko ospakizunetan, Arrue maiz izan ohi genuen hizlari. Hiztun trebea baitzen, bizia, jario gozokoa. Beste gertaldi askoren artean gogoan dut bat. 1957an Baionan ospaketa batzuk egin ziren Bonaparte Printzipearen oroitzapenetan. Iparraldeko euskaltzainek, harako hizlari bat behar zutela eta, eske etorri ziren. Lafitte jaunak irriño batekin hunela esan zuen: “Gu biziki hotzak gara eta zuk —Arrue— etorri beharko duzu berotzera”. Eta eskatu bezala, han ere bere hitzaren emaitza erregalatu zigun. Eta zenbat holako!»

Baiña itza jende aurrean atera baino leen, etxean paperera ixuri oi zuen. Idatzi, alegia. Lan oiek dira, batzuk euskeraz eta besteak erderaz, liburu au osatzen dutenak: itzaldiak, itzaurreak eta abar. Gaiak, berriz, euskal idazleak: bere erritar Juan Bautista Agirre, Jose Inazio Gerriko, Mogel, Bonaparte printzipea, Resurrezion Maria Azkue,

*Así lo hicimos. Pero también entonces nuestras esperanzas resultaron vanas. Por fin, el año 1976, cuando don Juan Carlos empezó a reinar, se consiguió el decreto de aprobación, y también entonces viajó a Madrid el señor Arrúe. (Cfr.: “Personalidad legal de la Academia de la Lengua Vasca”, revista Euskera, 1976, 279)».*

*El padre Villasante nos esclarece de esta manera otro de los aspectos de Arrúe:*

*«En los actos públicos de la Academia, Arrúe actuó con frecuencia de orador. Es que gozaba de una palabra fácil, viva, fluida y agradable. Entre otras muchas actuaciones guardo una en la memoria. Se habían de celebrar en Bayona ciertos actos en recuerdo del Príncipe Bonaparte. Los académicos de Iparralde (zona septentrional del País Vasco) deseaban un orador para ese evento. El señor Lafitte se expresó así con una sonrisa: “Nosotros somos muy fríos y usted —Arrúe— habrá de venir a dar un poco de calor”. Y como se lo habían rogado, también allí nos obsequió con su palabra. ¡Y cuántas veces lo mismo!»*

*Pero antes de hablar en público, lo confiaba todo en casa al papel. Es decir, lo escribía. Son esos trabajos, unos en vascuence y otros en castellano, los que componen este libro: conferencias prólogos y demás. Y los temas, algunos escritores en euskera: su paisano Juan Bautista Aguirre, José Ignacio Guerrico, Moguel, el príncipe Bonaparte,*

“Cuatro poetas vascos actuales” (Mirande, Iratzeder, Gandiaga eta Aresti), Loramendi, Urruzuno, Ulibarri... Bertsolariak: Iparragirre, Bordel... Istoria-gaiak: “*San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*”... “Euskera-ren Batasuna” izeneko lana ere badu. Itzaldi oiek danak Euskal Errian eman zituen: Donostian, Okondon, Elgoibarren, Bilbon, Baionan...

Baiña gastronomiari buruzkoak ere baditu, oiek danak erderaz, Bartzelonan, Donostian, Madrillen, Logroñon...

Arrueren zaletasunak zein ziran garbi adierazten dute lan auek. Baiña berak nai ainbat arreta ezin gai oietara eskeiñi. Lege-gizona zanez, eguna betetzen zioten beste zer egiñik bazuen. Batzuetan, berari entzun izan nionez, apalondoan kafe bat artu eta bere gustoko lan oietan jarduten zan, loari ordu batzuk kendutik.

Lan oietarako, irakurleak ikusiko duenez, ongi prestatzen zan. Iritzi sakonak eta bete-betekoak agertzen ditu, denbora berean argibide asko emanaz. Kultura aundia zuela erakusten du, eta asko irakurria zala ere bai.

Darabillen izkuntza ere oso berea duela erakusten du. Euskera baldin bada, txikitandik bereganatua zuela eta geroztik asko aberastua. Erderarekin, berriz, ikasketak izkuntza ortan egin zituela eta, legegizona zanez, eguneroko erabili bear zuela...

Bein baiño geiagotan zera entzun nion: euskal literaturan etzala kritika bear bezela egiten eta berak, erretiroa artutakoan, ortan lan pixka bat egiteko gogoia zuela... Artarako egokia zan

*Resurrección María Azcue, “Cuatro poetas vascos actuales” (Mirande, Iratzeder, Gandiaga y Aresti), Loramendi, Urruzuno, Ulibarri... Los bersolaris Iparragirre y Bordel... Temas históricos: San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas”. Temas lingüísticos: “la unificación del vascuence”... Todas esas conferencias las pronunció en el País Vasco: en San Sebastián, Oquendo, Elgoibar, Bilbao, Bayona, Valcarlos...*

*Están también las conferencias sobre gastronomía, todas en castellano, pronunciadas en Barcelona, San Sebastián, Madrid, Logroño...*

*Estos trabajos nos muestran claramente cuáles eran las aficiones de Arrúe. Pero él no podía dedicarles todo el tiempo que hubiera deseado. Como hombre de leyes, tenía otras ocupaciones que le llenaban el día. A veces, según le oí a él mismo, tomaba después de cenar un café y se entregaba a esos trabajos de su gusto, restándole al sueño unas cuantas horas.*

*Para esos temas, como lo podrá comprobar el lector, se preparaba a conciencia. Vierete opiniones profundas y, al mismo tiempo, proporciona muchos datos. Demuestra poseer una cultura amplia y un gran bagaje de lecturas.*

*Evidencia, además, un gran dominio de la lengua que emplea. En el caso del vascuence, porque lo aprendió en su infancia y después lo fue enriqueciendo. Y en el del castellano, porque en ese idioma había hecho sus estudios y porque, como abogado, lo utilizaba a diario...*

*En más de una ocasión le oí decir que en el campo de la literatura vasca no se había una crítica auténtica y acertada, y que*

iñondik ere. Baiña etzan jubilatuta bere asmo eta usteak ustel gelditu ziran...

Bitartean, nik ere nere lanetan jarraitzen nuen, Arruek mesede aundi bat egiten zidala. Urte aietan zensura indarrean zegoen eta liburuek, argitaratuko baziran, agintarien baimena bear zuten. Egilleak liburugai edo originalaren iru bat kopia eramane bear izaten zituen Donostiako toki jakin batera. Agintariek gizon bat bazuten ortarako jarria, eta onek zekarkiotena irakurri eta bere iritzia ematen zuen. Baiezkoa bazan, liburua aurrera jarraitzen zuen; ezezkoa bazan, berriz, bertan gelditzen zan, kotxea semaforo gorria jartzean bezela.

Arrue eta biok tranpa egiten genion lege orri, Auspoaren liburua aterata izateko. Arrue etzan bein ere zensura egille izan; baiña beraren esana agintariek ontzat artzen zuten. Ala, nik liburu bat prestatutakoan, eskutitz bat idazten nuen onelatsu esanez: *"Habiendo leído el libro . . . . . , no encuentro en él nada impropcedente"*. Ondoren, liburugaia eta eskutitz ori Arrueren etxera eramaten nituen. Berak nik idatzitako eskutitza firmatzen zuen, liburugaia eta eskutitza zensurara bialtzen zituen, eta baimena ematen zuten. Joko ori auskalo zenbat aldiz egin genuen.

Era ortan zensurari tranpa egiten geniola esan det. Itxuraz bai, baiña berez etzan orrelakorik. Orrela jokatu aal izateko, izan ere, nere liburuan zer esaten nuen ongi eta zeatz neurtu bear nuen, Arrue jauna konpromisoan ez sartzekotan. Era ortan, egilleak berak

*él tenía deseo de trabajar algo en ese tema, cuando se jubilara... Valía, desde luego, para ese quehacer. Pero nunca tomó el retiro y sus planes y proyectos no se realizaron.*

*Entre tanto, yo continuaba con mis trabajos, al tiempo que Arrúe me hacía un gran favor. Durante aquellos años imperaba con fuerza la censura, y para publicar un libro era necesario el permiso de las autoridades. El autor había de presentar tres copias del original en cierta oficina de San Sebastián. Había un señor designado para el caso, el cual leía lo que le traían y daba su parecer. En el caso de que éste fuera afirmativo, el libro seguía camino adelante; pero si era negativo, quedaba detenido, como el coche en una avenida cuando el semáforo se pone en rojo.*

*Arrúe y un servidor habíamos encontrado la manera de burlar esa ley y poder publicar los libros de la Colección Auspoa. El señor Arrúe nunca fue censor de libros; pero las autoridades admitían como válido su parecer. De esa manera, cuando yo preparaba un libro, escribía yo una carta que decía: "Habiendo leído el libro . . . . . , no encuentro en él nada impropcedente". A continuación, llevaba el original y esa carta a casa de Arrúe. Firmaba él la carta que yo había escrito y enviaba ésta y el original a la censura, donde nos concedían sin más el solicitado permiso. Dios sólo sabe cuántas veces repetimos esa estratagemata.*

*He dicho antes que de ese modo burlábamos la censura. A primera vista sí, pero en realidad no había tal. Es que para ese proceder, debía yo medir cuidadosamente cuanto decía en el libro, para no exponer al señor Arrúe a un serio compromiso. De esa*

egiten du bere liburuen zensura. Baiña mesede aundia denbora irabaztearekin genuen. Guk erabilitako bidetik, bai-mena bereala genuen; bestela, berriz, legezko bideetatik alegia, zensura egilleak irakurri eta gaiñontzeko pausoak eman bitartean, denbora luze joaten zan.

Gertaera bat gogoratzen zait une ontan zensurarekin zer ikusirik duena. Igande batez, ez dakit zein urtetan, bazkalondoan, telefono dei bat izan zuten Arrueren etxean. Nor izango eta:

—Xalbador bertsolaria nauzu. Goierriko alako erritan naiz, bertsolara etorria. Lazkao-Txiki ere kantatzekoa zen, baiña zensurak galerazi egin dio. Ez al zenuke aren alde zerbait ere egingo, emendik aurrera eragozpenik izan ez dezan?

—Bai. Aalegiñak egingo ditut —erantzun zion Arruek.

Ala, urrengo egunetan ate joka jardun zan, Lazkao-Txikiri mesede ori egitearren, bertsolari au ere asko maite baitzuen.

Beste gertaera bat: 1968 urteko urtillan, iru eguneko jardunaldi batzuk ospatzekoak ziran Arantzazun. Gai nagusia euskeraren batasuna zan. Arrue eta biok azken egunean joatea erabaki genuen.

Donostitik ordu onean atera giñan nere kotxean. Baiña ni txofer berria izanik, eta kotxea bigarren eskukoa, Billa-bonako garaje batean sartu bear izan genuen, motorra bear bezela etzebille-lako. Konpondu bitartean, kamioan paseatzen ibili giñan, denbora pasa. Arantzazura iritxi giñanerako, bazkal ordua zan eta, gu gabe naiko euskalt-

*manera, es el mismo autor el que hace la censura de su libro. Pero ganábamos mucho con el aborro de tiempo. Con el sistema que empleábamos, el permiso nos llegaba muy pronto; si no, por los caminos marcados por la ley, entre lo que el censor tardaba en la lectura y en dar los demás pasos, el tiempo corría más de la cuenta.*

*Recuerdo en este momento una anécdota relacionada con la censura. En la sobremesa de un domingo, no sé de qué año, sonó el teléfono en casa de Arrue. Quién pudiera ser y:*

*— Soy el bertsolari Xalbador. Estoy en tal pueblo del Goyerri, habiendo venido a cantar estrofas. También Lazkao-Txiki había de cantar, pero la censura se lo ha prohibido. ¿No podría usted hacer algo, para que en adelante no se lo impidan?*

*—Sí. Haré cuanto esté en mi mano —le respondió Arrue.*

*Los días siguientes se dedicó a hacer ese favor a Lazkao-Txiki, bersolari a quien también estimaba mucho.*

*En octubre de 1968 se habían de celebrar en Aránzazu unas jornadas de tres días. El tema a tratar, la unidad del vascuence. Arrúe y yo decidimos ir el último día; es decir, el sábado.*

*Salimos de San Sebastián a buena hora en mi coche. Pero entre que yo era nuevo chófer y el coche de segunda mano, tuvimos que detenernos en un garaje de Billa-bona, porque el motor no funcionaba como debía. Mientras lo arreglaban, anduvimos paseando por la carretera, matando el tiempo. Cuando llegamos a Aránzazu era la hora de comer y, como sin nosotros había suficientes académicos, todos los acuerdos*

zain bazegoen ezkerero, erabaki guziak artuak ziran. Auek, beraz, onartuta zeuden.

Etixerakoan, Udanako gaiña baiño leen gelditu giñan. Bazan an zerbait ikusi nai genuena. Beraren azken egunetan, Begoñako balazoa artu ondoren, Zumalakarregiri kontu egin zion Petrikillo edo medikua antxe illa zan, ez dakit ezbearrez edo nola, eta oroi-pengarritzat gurutze bat bide bazterrean zeukan. Arruek boligrafo eta pape-  
ra atera eta an jardun zan idazkia kopiatzen.

Urteak aurrera eta Arrue jaunak osasunez ondo irauten zuen. Baiña aren gainbeerakoa denbora gutxikoa izan zan. Batean, Oiartzunen bertsolariak zirala eta nik eramane nuen. Bertsoak entzun zituen. Ezagunak, bertsolariak eta bertsozaleak, gustora agurtu ere bai. Eguerdirako etxera bueltatu nuen. Bidean onela esan zidan: “Gaurko bertsolaritzak artifizialkeriz kutsatzeko arriskua du”. Ez da arritzekoa Pello Errotaren garaia ezagutu zuenak ori esatea.

Azkenekoz Hondarribin ikusi nuen. Aurrezki Kutxak *Premios Ciudad de Irún* izenekoak antolatzen zituen eta antxe. 1976 urtekoak zirala uste det, urriaren bukaeran. Arrue ere epaimaiekoa zan. Bera ere etorri zan eta oso erorita ikusi genuen. Ortaz komentario batzuk egin ere bai inguruko lagunek.

Andik egun batzuetara, Azaroaren 7-an, Xalbadorren omenaldia, bere liburua aurkeztea eta eriotza izan ziran. Ondoko egun batean telefonoz deitu zidan Arrue jaunak. Xalbadorrekin

*estaban tomados. Estos, por tanto, fueron aprobados.*

*A la tarde, de vuelta para casa, nos detuvimos antes del alto de Udana. Había algo que deseábamos ver. El médico o Petriquillo que atendió a Zumalacárregui en sus últimos días tras el balazo recibido en Begoña, había muerto en aquel mismo sitio, no sé si de accidente, y tenía allí una cruz que lo recordaba. Arrúe sacó papel y bolígrafo y estuvo copiando la inscripción.*

*Transcurrían los años y la salud del señor Arrúe seguía siendo buena. Pero su decadencia física fue más bien rápida. En cierta ocasión le llevé a Oiartzun a una sesión de bersolaris. Escuchó las estrofas que se cantaron. Saludó a gusto a los bersolaris y aficionados conocidos. Prefirió regresar a casa para el mediodía. En el camino de vuelta me dijo: “El bersolarismo de hoy corre peligro de volverse artificial”. No tiene nada de extraño que se expresara de esa manera quien había escuchado las estrofas de Pello Errota. No creo que volviera a oír cantar a los bersolaris.*

*Le vi por última vez en Hondarribia con ocasión de los Premios Ciudad de Irún, organizados por la Caja de Ahorros. Era a fines de octubre de 1976. Arrúe era también miembro del jurado. Cuando le vimos, lo encontramos muy decaído. Lo comentamos tristemente los amigos que le acompañábamos.*

*A los pocos días, en Urepel, el día 7 de noviembre, tuvieron lugar el homenaje al bersolari Xalbador, la presentación de su libro y su fallecimiento. Uno de los días siguientes me llamó por teléfono el señor Arrúe. Quería enterarse de lo sucedido. Fui dándole cuenta con detalle y largamente,*

gertatuaren berri jakin nai zuen. Txee-tasun guziak emanez antxe jardun nintzan, denbora luzean jardun ere, berak Xalbador asko estimatzen baitzuen. Gogoan det Arruek, bertsosaioren batetik etxerako bidean gentozela, bein baiño geiagotan esan zigula: "Urepeleko ori ez da gainontzeko bertsolariak bezela. Ori poeta ere bada". Ez nuen geiago Arruerekin itzegin, ez telefonoz eta ez bestela.

Astebetera, gosaltzera jeixterakoan, lagun batek Arrueren il-berria eman zidan. Bezperan, 1976-ko azaroaren 17-an, itzalia zan. Beraren etxera joan nintzan nere miña agertzearren.

Gorputza bere jaioterri Asteasura eramán zuten, eta illeta Donostiako San Bizente elizan ospatu zan. Euskaltzain geienak an giñan, batzuek aulkietan eta besteak, apaizak alegia, alda-rean.

Denbora-puska batera Arrueren alargunak telefonoz deitu zidan: etxera etortzeko, alegia, nerekin itzegin bearra zeukala eta. Joan nintzan eta zera esan zidan:

—Antonio zanaren paperak ementxe bildu ditut. Ez dakit oiekin zer egin genezaken. Begiratu bat emango al diezu?

Baietz; gustora gaiñera.

Paper pilla ori galtzarpean artu eta etxerako bidea artu nuen. Azterketa ori egin eta zera ikusi nuen: bi pusketan zatitu zitezkeela aren idazlanak. Batetik, Arruek *Jan edanak* izenarekin *Egan* aldizkarian idatzi oi zituen artikuluak; eta bestea, berak an eta emen emandako

*pues él estimaba mucho al bersolari Xalbador. Recuerdo que en más de una ocasión, mientras regresábamos a casa después de un concurso de bersolaris, le había oído comentar: "Este bersolari de Urepel no es como los otros. Ése es, al mismo tiempo, poeta". No volví a hablar con el señor Arrúe, ni por teléfono ni personalmente.*

*Al cabo de una semana, al bajar a desayunar, me dio un compañero la noticia del fallecimiento de Arrúe. Había muerto la víspera, el día 17 de noviembre de 1976. Fui a su casa a expresar mis condolencias.*

*El cadáver fue inhumado en Asteasu, su pueblo natal, y el funeral se celebró en la parroquia de San Vicente, de San Sebastián. Nos hallábamos presentes casi todos los académicos, unos en los bancos y otros, los sacerdotes, en el altar.*

*Al cabo de algún tiempo me llamó por teléfono la viuda del señor Arrúe: que hiciera el favor de visitarle en su casa, que tenía algo que quería tratar conmigo. Acudí y me habló de esta manera:*

*—Tengo aquí reunidos los papeles del difunto Antonio. No sé qué podríamos hacer con ellos. ¿Querría usted echarles una ojeada?*

*Le respondí que sí, que lo haría con mucho gusto.*

*Con aquel rintero de papeles bajo el brazo, tomé el camino a casa. Los examiné y vi que sus escritos podían distribuirse en dos apartados. Por un lado, los artículos publicados en la revista Egan, con el título de Jan-edanak (Manjares y bebidas); y por otro, las conferencias impartidas y los prólogos que había escrito. Es decir, que había material para dos libros.*

itzaldiak eta moldatutako itzaurreak...  
Bi libururen gaia zegoela, alegia.

Orren berri Arrueren alargunari eman nion eta urrengo pausoa Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialera ematea pentsatu genuen. Onek, izan ere, *Documentos* izeneko liburu sail bat argitaratzen zuen garai artan. Ona beraren itzak:

«La colección Documentos es una de las series que la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa dedica en el ámbito de su política editorial para desarrollar temas concretos vinculados fundamentalmente a nuestra etnia y a nuestra cultura».

Aurrezki Kutxa ortara joan nintzan, beraz, nere eskea egin nuen, eta bi liburugaiak bertan utzi. Denbora asko baino leen erantzun zidaten: baietz, liburuarak onartzen zituztela eta leenengo *Jan-edanak* izeneko aterako zutela.

Egin ere ala egin zuten. *Jan-edanak* liburua 1979 urtean plazaratu zan, gaiari zegokion azal polit batekin eta saillaren 19-garren zenbakiarekin. Liburuaren aurkezpena ere egin zan.

Baiña denbora aurrera eta bigarren liburua etzan agertzen.

Geroztik, liburugai ori, karpeta urdin lodikote bat osatzen zuena, nere apaletan lo egon zan urteetan. Batzuetan nere eskuak ikuitzen zuten, eta nik nere barruan esan ere bai: «Emen dago, bada, alper-alperrik, orrela egoterik merezi etzuen».

Baiña 2005 urteko Urrian, Arrue jaunaren alarguna il zan. Illeta, sena-

*Se lo comuniqué a la viuda de Arrúe y pensamos que el siguiente paso había que darlo en la Caja de Ahorros. Es que ésta publicaba en esa época una colección de libros con el título de Documentos. He aquí las palabras con que la definía:*

«La colección Documentos es una de las series que la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa dedica en el ámbito de su política editorial para desarrollar temas concretos vinculados fundamentalmente a nuestra etnia y a nuestra cultura».

*Me presenté en la Caja de Ahorros, formulé mi petición y deposité allí los dos originales. Me dieron al poco tiempo la contestación: que sí, que aprobaban los dos libros y que publicarían primero el titulado Jan-edanak (Manjares y bebidas).*

*Así es como lo hicieron. El libro Jan-edanak vio la luz el año 1979, con el número 19 de la colección. A los días tuvo lugar la presentación del mismo.*

*Pero el tiempo seguía su curso y el segundo libro no aparecía.*

*Ese original, que llenaba una gruesa carpeta de color azul, durmió en mis estantes durante años. De vez en cuando lo tocaba yo con las manos y comentaba para mis adentros: «Aquí descansa inútilmente lo que no merecía estar de esta manera».*

*Pero en octubre de 2005, fallecía la viuda de Arrúe. Lo mismo que por su esposo, se celebró el funeral en la parroquia de San Vicente, de San Sebastián. En aquel momento se me hacían presentes los recuerdos del difunto Arrúe, y también el del original no publicado.*

rrari bezela, Donostiako San Bizente elizan ospatu zitzaion. Une artan Arrue zanaren oroipenak berritu zitzaizkidan, eta argitaratu gabeko liburugaiaren kontua ere bai.

Illetaren ondoren, antxe bertan, eliz atarian, Arrueren seme-alabei bigarren liburugai orren berri eman nien. Argitaratzeko eskatu zidaten, arren da arren. Euskaltzaindiaren buru dan Andres Urrutia ere antxe zan, beste zenbait euskaltzainekin. Eta arek liburugai ori berari bialtzeko eskatu zidan, Euskaltzaindiak ori argitaratzeko bidea biallatuko zuela.

Liburugaia bialdu nuen. Andres Urrutiaren erantzuna bereala etorri zitzaidan: baiezkoa; Euskaltzaindiak beste orrenbeste zor baziola ainbat laguntza egin zionari. Baiña itzaurrea nere kontu gelditzen zala

Leenengo lana liburugai guzia oso osorik ordenagailuz pasatzea izan da. Urrena, kopia bat neri bialdu. Ondoren nik irakurri eta lerro auk idatzi. Alakotetan gertatzen danez, lan oiek ez dira nai ordurako burutzen. Aldi ontan ere denbora errez joan zaigu. Baiña ona, noizbait bada ere, liburua irakurlearen eskuetan. Olakorik ondo merezi zutelakoan nago, bai egilleak eta bai idazlanek ere.

Antonio Zavala

*Tras las exequias, allí mismo, a la puerta de la iglesia, les hablé a los hijos de Arrúe de ese segundo original. Me pidieron que hiciera lo posible por publicarlo. Que ellos ayudarían a ello. Se hallaba presente el presidente de la Academia de la Lengua Vasca, Andrés Urrutia, acompañado de algunos académicos. Y me pidió que le enviara ese original, que la Academia encontraría manera de publicarlo.*

*Envié el original, La contestación de Andrés Urrutia vino enseguida: que sí, que publicarían el libro; que la Academia de la Lengua Vasca se lo debía a quien tanto le había ayudado. Ahora que el prólogo corría por mi cuenta.*

*El primer trabajo consistió en transcribir todo el original por ordenador. Me enviaron a continuación una copia. Después de leerla he escrito estas líneas. Como sucede en tales ocasiones, esos trabajos no se ul-timan tan pronto como se desea. También esta vez se nos ha ido el tiempo con excesiva rapidez. Pero he aquí, por fin, que ponemos el libro en manos del lector. Creo que así se lo merecían tanto el autor como sus escritos.*

Antonio Zavala